



# Getxo

EUROPAKO  
MUGIKORTASUN  
ASTEAK

IRAILAK 16-22



Getxo

bizi ezazu

Ingurumena  
Medio Ambiente

[www.getxo.eus/eu/medio-ambiente-movilidad/movilidad](http://www.getxo.eus/eu/medio-ambiente-movilidad/movilidad)

Irailaren 16tik 22ra bitartean, Europako Mugikortasun Astea antolatuko du Getxoko Udaleko **Ingurumen Arloak, Konbinatu eta mugi zaitez!** lelopean. Ekimenak elkarrekin espazio publikoa nola partekatu erabakitzea gonbidatzen gaitu, ingurune atsegin batean mugikortasun seguru eta eroso ziurtatzeko, batez ere oinezkoentzat eta txirrindularientzat.

Horretarako, **Getxoko Udalak** espazio publiko partekatuarekin lotutako askotariko jarduerak antolatu ditu. Aurreko edizioetako hainbat ekintza errepikatuko dira aurten, interes eta partaidetza handia erakarri baitzuten. Esaterako, *Ikasi pedalei eragiten* edo *Bizikleten oinarrizko*

*mekanika eta mantentze-lanak* direlakoak. Beste batzuk, ordea, berriak dira: *Mugi zaitez familiarekin*, *Txirrindularientzako lehen sorospena*, *“Entrenamendu funtzionala eta Egin korrika*, besteak beste.

Halaber, **irailaren 22an (igandea)**, **Autorik gabeko Eguna ospatzeko**, umeentzako jarduerak eta jolasak antolatu ditugu, udalerriko hainbat elkarte eta klubekin elkarlanean.

**IGANDEAN, IRAILAK 22. Nobedadea!**  
**Zatoz Areeta aldera moto elektrikoak probatzera eta ibilbide txiki bat egitera.**

## MUGIKORTASUN ASTEKO JARDUERAK

### ASTELEHENA 16 ETA ASTEAZKENA 18

#### IZEN-EMATEA



**BICI BILBAO TAILERREKO:**  
Marianresena Kalea 1,  
atzeko lonja. Algorta

**BIZIKLETEN OINARRIZKO MEKANIKA ETA MANTENTZE-LANAK** 11:00etatik 13:00etara - **ALGORTA.**

**BICI BILBAO TAILERREKO** instalazioetan emango den ikastaro honetan bizikleta beti prest izateko behar duzun guztia erakutsiko dizugu. Gainera, zure bizikleta ekar dezakezu, ikasi ahala praktikatzeko!

**ASTELEHENA 16** ALGORTA ALDEA

**ASTEARTEA 17** AREETA ALDEA

**BIZIKLETENTZAKO SEGURTASUN-ARGIEN BANAKETA** 12:00etatik 13:00etara.

**Segurtasun-argiak** emango dizkiegu\* bizikletaz, patinetan edo edozein ibilgailu jasangarritan ibiltzen diren pertsona guztiei.



\*Izakinak agortu arte

### ASTEARTEA 17

**TAILERRA: MUGI ZAITEZ FAMILIAREKIN.** 18:00etatik 19:00etara - **BIZKAIA ZUBIA PLAZA.**



**VIVÓ LA DANSE STUDIO:**  
Puente-Zubia Plaza, 1  
Areeta

**VIVÓ LA DANSE STUDIO** dantza-eskolaren eskutik. Zatoz gorputza mugitzera eta gozatu dantzaz, erritmoaz eta mugimenduaz. Primeran pasako duzu familiartean.

### ASTEAZKENA 18 ETA OSTEAGUNA 19



**IZEN-EMATEA**

**IKASI PEDALEI ERAGITEN**

18:00etatik 19:00etara - **EVARISTO TXURRUKA KAIA.** Pedalei eragiten erakutsiko dizugu! Helduei bizikletak utziko dizkiegu. Hurrek, berriz, 8 urtetik gorakoak izan behar dute, eta bizikletak etxetik ekarri. Kaskoa nahitaezkoa da 16 urtetik beherakoentzat.

**JARDUERA GEHIAGO HURRENGO ORRIALDEAN →**



**IZEN EMATEAK:** Telefonoz: **605 74 90 64** (lanorduetan). Posta elektronikoz: [getxomovilidad@gmail.com](mailto:getxomovilidad@gmail.com) (aukeratutako jarduera, izen-abizenak eta telefono-zenbakia adierazita). Jarduera guztiak doakoak dira.

# MUGIKORTASUN ASTEKO JARDUERAK

## ASTEAZKENA 18 TXIRRINDULARIENTZAKO LEHEN SOROSPENAK 18:00etatik 19:30era - AREETAKO GELTOKIA PLAZA.



Ba al dakizu nola jokatu behar duzun bizikletako istripu bat ikusi edo pairatuz gero? Bestalde, oinarriko botikin bat antolatzen jakingo zenuke? Eta norbait immobilizatzen? **GETXOKO GURUTZE GORRIAK** hau guztia eta beste gako batzuk azalduko dizkizu taller ireki honetan.

## OSTEGUNA 19 EGIN KORRIKA!

**IZEN-EMATEA**

19:00etan - BIZKAIA ZUBIA PLAZA.

**TRIRUNNERS**-en eskutik. Anima zaitez gurekin erritmo moderatuan korrika egitera, lagunartean kirolaz eta gure udalerriaz gozatzeko.



**TRIRUNNERS:**  
8. lokala, Zubiko Plaza, 8 - Areeta

## OSTIRALA 20 BIGARREN ESKUKO E-BIKEN PROBA ETA SALMENTA

17:00etatik 20:00etara - BIZKAIA ZUBIA PLAZA.

Ez dakizu zer bizikleta elektriko mota behar duzun? Zatoz **DECATHLON**-en bigarren eskuko e-bike flota zabala probatzera. Zure beharretara hobekien egokitzen dena erosi ahalko duzu, eta, pixkatxo bat aurrezteaz gain, ingurumena zaintzen lagunduko duzu. **Gainera, bizikletak probatzeagatik, bizikleta baten zozketan parte hartuko duzu (20:00etan).**



**IZEN-EMATEA**

## TAILERRA: ENTRENAMENDU FUNTZIONALA

18:00etatik 19:00etara - ALGORTA.

**KEMEN** pilates-zentroko instalazioetan emango da tailerra. Gorputza entrenatzeko ariketak egingo ditugu, eguneroko bizitzako zereginen sasoi onean aurre egiteko.



**KEMEN:** Kasune Kalea, 10, Algorta

## XAKEA. ATE IREKIAK

18:00etatik 19:30era - RKE (Romo Kultur Etxea).

Zatoz **Dama Gaztea xake-klubak** adin guztietarako eskaintzen dituen ate irekien jardunaldietara. Jarduera honek memoria hobetzen laguntzen du, kontzentrazioa areagotzen du eta pentsamendu logikoa eta erresilientzia sustatzen ditu.

**IZEN-EMATEA**



## LARUNBATA 21 IBILBIDEA URETAKO BIZIKLETAZ

11:00etatik 13:00etara - GETXOKO KIROL-PORTUA. Deskonektatu egunerotik eta bat egin naturarekin modu jasangarrarian.



**IZEN-EMATEA**



## BELAONTZIAN NABIGATZEA

11:00etan - GETXOKO KIROL-PORTUA.

**Familiantzako jarduera.** Familiantzako jarduera. Eman lehen urratsak belaontzi batean. Portutik gertu nabigatuko dugu, itsasontzi mota hau gidatzeko asmoz trebatzeko.

**IZEN-EMATEA**

## IGANDEA 22

### BELAUNALDIARTEKO BIZIKLETADA

**Bizikleten erabileraz kontzientziatzeko ibilbide zirkularra.**

**BIAPUNTUA:** 11:00etan - Areetako Geltokia plaza (taxi-geltokiaren aurrean). **TARTEKO SARBIDEA:** 11:40ean - Telletxe kalearen eta Algorta etorbidearen arteko bidegurutzea (Teima saltokiaren aurrean)

**HELMUGA:** 12:30ak aldera - Bizkaia Zubia plaza. **GARRANTZITSUA:** dortsalak 15 minutu lehenago entregatuko dira abiapuntu bakoitzean. Derrigorrezkoa da kaskoa erabiltzea. 8 urtetik aurrera.

## IGANDEA 22 - AUTORIK GABEKO EGUNA. Trafiko etenak egongo dira Algortan eta Areetan 8:00etatik 20:00etara

### TELLETXE KALEA (ALGORTA) • KALE NAGUSIA (AREETA)

Bi kaleak oinezkoentzat izango dira **11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara**. Autoen ordez, ohe elastikoak, kart eta minimotorrentzako zirkuituak, skate-tailerra, egurrezko jokoak eta sorpresa mordoa aurkituko dituzu.

**SAREKIDE Getxo** Getxoko boluntarioritza erakundearen elkarte.

**ASEBIER** Euskadiko gaixotasun arraroen, arantza bifidoaren eta hidrozefalaren elkarte.

**ASOCIACIÓN GAUDE** Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako eta haien senideentzako laguntza.

**AHIDA** Bizkaiko AGNH duten pertsonen elkarte.

**"Guztiantzako dantza" tailerra**

**APNABI** Autismo Bizkaia

**Informazioa**

**ASPERTXU Bizkaiko Asperger eta EAN elkarte**

**Puxikak eta txapa-tailerra**

**DAMA GAZTEA XAKE KLUBA**

**Zatoz jokatzera!**

**GETXOKO GURUTZE GORRIA**

**Bide-segurtasuneko zirkuitua**

**GETXO SHOW patinaje-kluba**

**Entrenamendu-erakustaldia**

**GETXO ERRITMIKA KLUBA**

**Entrenamendu-erakustaldia**

**ANAKIDS ESKOLA**

**ESKULANEN TAILERRA**

Hainbat garraio mota sortuko ditugu material birziklatuak eta bestelako elementuak erabiliz. Familiartean gozatzeko plana!

## MOTOR ELEKTRIKOEN PROBAK

Zatoz Areetako Geltokia Plazara eta proba ezazu motor elektriko bat **BSCOOTER**-en eskutik. Ibilgailu elektrikoaren abantailen berri jasoko duzu, bai ekonomiaren aldetik, bai ingurumenari dagokionez. Parte-hartzaileei kaskoak, eskularruak eta babes-jaka emango zaizkie. Jardueran parte hartzeko, ibilgailu hauek gidatzeko baimena izan behar duzu (aldeaz aurretik egiaztatuko da dokumentazioa zuzena dela eta indarrean dagoela).

### IBILGAILUEN ZIRKULAZIO-ETENAK ALGORTAN ETA AREETAN

Irailaren 22an, igandea, 8:00etatik 20:00etara, ibilgailu pribatuen zirkulazioa eta aparkamendua mugatuta egongo da Algorta eta Areetako erdiguneetan hainbat kaletan. Garajeetatik ibilgailuak ateratzea bakarrik baimenduko da kale horietan. Murrizketek ez dute eraginik izango garraio publikoan, ezta Getxoko Udalaren aldeaz aurreko baimena duten establezimenduetako ibilgailuetan ere. Eskeraer: [ingurugiroa@getxo.eus](mailto:ingurugiroa@getxo.eus). Mesedez, kendu ibilgailua aipatutako kaleetatik antolatutako jarduerak ez oztopatuzeko. Garabiak gune horietan aparkatutako dauden ibilgailuak kenduko ditu.



**ESKERRIK ASKO ENPRESA ETA ELKARTE HAUEI EKIMENEAN PARTE HARTZEAGATIK ETA GURE UDALERRIA JASANGARRIAGOA IZAN DADIN LAGUNTZEAGATIK.**

